

---

## Lindanoa lurzorutik kentzeko konposatu bat sortu dute

Lindanoa zabortegietatik eta kutsatutako lurretatik kentzea errazten duen konposatu bat sortu du Nafarroako Unibertsitateko eta Magna eta Emgrisa enpresetako ikertzaile-talde batek. Konposatu hori zuzenean erabil daiteke lurzoruan, poluitutako eremua garbitzeko.



ARG.: vkingxl/Pixabay

Lindanoa oso toxikoa, iraunkorra eta biometagarria da. Urte askoan erabili izan da intsektizida gisa, eta Europar Batasunean debekatuta dago 2008tik, ingurumenean eta osasunean eragiten dituen kalteengatik.

Konposatu berria bereziki xurgatzailea da atmosfera erreduzitzaile eta alkalinoan. "Azken produktua ekonomikoki bideragarria da, ekoizteko erraza, ekonomia zirkularreko lehengaiak ditu eta oso eraginkorra da", dio Javier Errok, Nafarroako Unibertsitateko Biodibertsitate eta Ingurumen Institutuko ikertzaileak.


Berritasun nagusietako bat da zuzenean aplikatu daitekeela, kutsatutako lurzoruan isolatu beharrik gabe. Gainera, frogatu dute lindanoaren % 90 baino gehiago ezabatzen duela denbora gutxian. Bestetik, azpimarratu dute beste zenbait konposatu organiko edo ez-organiko berreskuratzeke ere balio duela; adibidez, metal astunak. ●

---

## Araztegi-urek ibaien ekosisteman eragiten dutela frogatu dute

Araztegi-urek, ondo tratatuta eta diluituta isuri arren, ibaietako dibertsitatean eta sare trofikoan eragiten dutela frogatu du EHUko Ibai ekologia ikerketa-taldeak. Horrenbestez, ondorioztatu dute hondakin-urak tratatzeko gaur egun ezarrita dauden mugak eta erabiltzen diren prozedurak ez direla nahikoak ekosistemak babesteko.

Araztegietatik isurtzen diren efluenteez, nahiz eta tratatuta dauden, kutsatzaileak, nutrienteak eta patogenoak izaten jarraitzen dute. Araztegi aurreratuek ere —hau da, nutrienteak, materia organiko eta metalak murrizteko tratamendu gehigarriak aplikatzen dituztenek ere— eragina dute, isuriak luzaroan mantentzen badira.



Ibai ekologia taldeko ikertzaileak, lanean. ARG.: EHU.

Lehenik, hainbat aldagai neurtu zituzten kutsadurarik gabeko erreka batean aukeratutako bi tartetan, urtebetez. Ondoren, araztegi batean ondo tratatu eta asko diluitutako urak tarte horietako batera desbideratu zituzten, eta beste urtebetez neurketak egin zituzten. Hala, frogatu zuten orno-gabeen dibertsitatea murriztu egin zela eta komunitateak heterogeneoak bihurtu zirela. ●